

## JARDUN AKADEMIKOAREN PLANA 2016/17 - BERRIKUNTZAK

[GOBERNU KONTSEILUAK 2015/10/01eko BILERAN ONARTUA]

Gobernu Kontseiluak Jardun Akademikoaren Plan (JAP) berria onartu zuen 2015eko urriaren 1eko bileran. Plan hori 2016/17 ikasturterako eta hurrengoetarako izango da. Aldaketarik esanguratsuenak honako hauek dira:

1. JAParen eraginpeko irakasle eta ikertzaileen irakats ahalmen gordina (IAGd), lehen nagusiki seiurteko bizien araberakoa zena, orain beste era honetara zehazten da:
  - Apirilaren 20ko 14/2012 EDko 6.4 artikuluan zehazten diren baldintzak betetzen dituzten irakasle eta ikertzaileek 16 kredituko irakats ahalmen gordina izango dute, funtzionarioak izan zein lan kontratudun iraunkorrek izan.
  - Gutxienez seiurteko bat (bizia edo ez) duten irakasle eta ikertzaileek, aurreko baldintzak bete ezean, 22 kredituko irakats ahalmen gordina izango dute.
  - Irakasle eta ikertzaile doktoreek, gehienez, 26 kredituko irakats ahalmen gordina izango dute. Hala ere, lan kontratudun irakasle eta ikertzaileek, euren *lan hitzarmenean horrela jasota dagoen kasuetan*, 24 kredituko irakats ahalmen gordina izango dute.

Jardun Akademikoaren Planaren eraginpeko irakasle eta ikertzaileen irakats ahalmen gordina figuraren arabera			14/2012 EDko 6.4 artik. bald. betetzen dituzten	Seiurteko dauka (bizia edo ez)	Doktorea da	Aurreko bat ere ez	
Arduraldi osoko irakasle iraunkorrek	Funtzionarioak	Unibertsitateko katedradunak	16	22	26		
		Unibertsitate eskolako katedradunak					
		Unibertsitateko titularrak					
		Unibertsitate eskolako titularrak					
	Lan kontratudun finkoak	Irakasle osoak			24		
		Agregatuak					
		Unibertsitateko lankide iraunkorrek					24
		Unibertsitate eskolako lankide iraunkorrek					30
Prestakuntza bidean dauden eta lanpostuen zerrendako plaza bat betetzen ari diren irakasleak	Aldi baterako lan kontratudunak	Atxikiak		24			
		Unibertsitateko aldi baterako lankideak*				24	
		Unibertsitateko bitarteko lan kontratudunak. *				30	
		Unibertsitate eskolako aldi baterako lankideak*					
		Unibertsitate eskolako bitarteko lankideak*					

\* Tesia egiteko edo akreditazioa lortzeko konpromisoa dute indarrean Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzarekin.

Oharra: JAParen eraginpean ez dauden irakasle eta ikertzaileen IAGd (kredituak) = kontratu orduak x 3

## JARDUN AKADEMIKOAREN PLANA 2016/17 - BERRIKUNTZAK

[GOBERNU KONTSEILUAK 2015/10/01eko BILERAN ONARTUA]

2. Ohiko irakaskuntzatzat (OI) hartzen diren jarduerak ez dira aldatu, baina aurrez aurreko 45 eskola ordu eman beharra sartu da (4,5 kreditutik beherako irakats ahalmen garbia –IAGb– duten irakasle eta ikertzaileentzat izan ezik).
3. JAPean ohiko irakaskuntzaren barruan jasota ez dauden jarduerak (IKER, G eta EI izenekoek) aldaketa sakonak izan dituzte. Kontzeptu batzuk kendu egin dira, beste berri batzuk sartu dira eta jarduera askotan aldatu egin dira kredituak aitortzeko eskaeren baldintzak eta aitor daitekeen kreditu kopurua. Aldaketa horien zerrenda eta deskribapena dokumentu honen 3. orrialdean eta 4.ean daude jasota.
4. Administrazioak bere kabuz aitortu ezin dituen jarduerak, hau da, irakasle eta ikertzaileek TRAINERAREN bitartez eskaera egin dezatela eskatzen dutenak, sinplifikatu egin dira. Era horretako bost jarduera geratu dira, honako hauek hain zuzen:

2016/17ko IKASTURTEKO JAPAREN DEIALDIEN XEHETASUNAK			
ESKAERA MOTA	EBALUAZIO ALDIA	NORK EGIN DEZAKE ESKAERA?	EGIN DAITEKEEN ESKAERA KOPURUA
IKER1- JCR, SCOPUS argitalpenak.	2014 urtea.	Seiurtekorik ez duten irakasle ez-doktoreek.	Bat. Eskatzaileak aurkeztu behar du bere ustez ebaluazio aldi horretan daukan merezimendurik onena.
EI10- Euskararekin zerikusia duten jarduerak-Euskarazko Berezko Tituluetan euskaraz emandako irakaskuntza.	2014 urtea.	JAParen eraginpeko irakasleek.	Nahi beste.
EI11- Euskarazko eskuliburuak argitaratzea.	2014 urtea.	JAParen eraginpeko irakasleek.	Nahi beste.
EI12-Genero ikuspegia unibertsitateko irakaskuntzan txertatzeko eskuliburuak (ISBN edo ISSNdunak) argitaratzea.	2014 urtea.	JAParen eraginpeko irakasleek.	Nahi beste.
Akreditazio hauetako bat aitortzea: irakasle atxiki/laguntzaile doktoarena edo irakasle agregatu/ doktoare kontratatuarena edota unibertsitateko titularrarena.		Prestakuntza bidean dauden eta lanpostuen zerrendako plaza bat betetzen ari diren irakasleek, atxikiek izan ezik.	Bat.

5. IKER, G eta EI ataletan muga partzialak mantendu dira baina kendu egin da gestio lan eta irakaskuntza gehigarri guztiak batuta murriztu zitezkeen kredituen muga partziala eta ondorengo muga globalak ezarri dira:
  - o 2 kreditu apirilaren 20ko 14/2012 EDko 6.4 artikuluan zehazten diren baldintzak betetzen dituzten irakasle eta ikertzaileentzat (IAGd=16)

## JARDUN AKADEMIKOAREN PLANA 2016/17 - BERRIKUNTZAK

[GOBERNU KONTSEILUAK 2015/10/01eko BILERAN ONARTUA]

- 4 kreditu aurreko baldintzak bete gabe seiurtekoren bat (bizia ala bizirik ez dagoena) egiaztatzen dutenentzat (IAGd=22)
- 6 kreditu irakasle eta ikertzaile doktoreentzat (IAGd= 26 edo 24, irakasle eta ikertzaile figuraren arabera)
- 8 kreditu irakasle eta ikertzaile doktoreentzat (IAGd= 30 edo 24, irakasle eta ikertzaile figuraren arabera)

Ondorengo taulan JAP-IEEren gehienezko eta gutxieneko balioak agertzen dira karguagatik, lizentziagatik, eta abarregatik murrizketarik ez duten JAParen eraginpeko irakasle eta ikertzaileei (IAGd=IAGb).

		JAP-IEE kalkulatzeko abiapuntua					
		16	22	26	30		
<b>JAParen eraginpeko irakasle eta ikertzaileen gehienezko eta gutxieneko JAP-IEE, figuraren arabera (kargu, lizentzia edota lan-baxagatik murrizketarik aplikatu gabe)</b>		<b>14/2012 EDko 6. art. bald. betetzen ditu</b>	<b>Seiurtekoa dauka (bizia edo ez)</b>	<b>Doktorea da</b>	<b>Aurreko bat ere ez</b>		
Arduraldi osoko irakasle iraunkorrak	Funtzionarioak	Unibertsitateko katedradunak	14-16	18-22	20-26	22-30	
		Unibertsitate eskolako katedradunak					
		Unibertsitateko titularrak					
		Unibertsitate eskolako titularrak					
	Lan kontratadun finkoak	Irakasle osoak			20-24	22-24	22-30
		Agregatuak					
		Unibertsitateko lankide iraunkorrak					
		Unibertsitate eskolako lankide iraunkorrak					
Aldi baterako lan kontratadunak	Atxikiak	20-24	22-24	22-30			
	Unibertsitateko aldi baterako lankideak*						
	Unibertsitateko bitarteko lan kontratadunak*						
	Unibertsitate eskolako aldi baterako lankideak*						
	Unibertsitate eskolako bitarteko lankideak*						

\* Tesia egiteko edo akreditazioa lortzeko konpromisoa dute indarrean Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzarekin.

## JARDUN AKADEMIKOAREN PLANA 2016/17 - BERRIKUNTZAK

[GOBERNU KONTSEILUAK 2015/10/01eko BILERAN ONARTUA]

### I. eranskina

#### JAPean ohiko irakaskuntzaren barruan jasota ez dauden jardueretan egondako aldaketen laburpena

Informazio gehiago behar izanez gero, arautegi osoa ikusgai dago honako esteka honetan: <http://www.ehu.es/documents/3087158/3127975/Acuerdo+modificacion+PDA.pdf>

#### SARTU DIREN JARDUERAK (ETA BAKOITZAREN KODEA 2016/17ko JAPean)

- IKER 3- Balio bereziko ekarpena edo aitortpena: Nature, Science, patenteak, domina.
- IKER 4- Kategoria bereziko proiektuetako buruen edo parte hartzaileen lanaren aitortpena
- EI 12- Genero ikuspegia unibertsitateko irakaskuntzan txertatzeko eskuliburuak (ISBN edo ISSN dunak) argitaratzea.

...

#### BALDINTZETAN ALDAKETAK IZAN DITUZTEN JARDUERAK (ETA BAKOITZAREN KODEA 2016/17ko JAPean)

- IKER 1- Ikerketako merituenak:
  - Orain, seiurtekorik gabeko irakasle ez doktoreek soilik egin ahalko dute eskaera.
  - Merezimendu bakarra aurkez daiteke: JCR eta SCOPUS argitalpenak
- IKER2 eta IKER4: proiektuak eta kontratuak, eremuaren eta zenbatekoaren arabera, IKER2 edo IKER4 itemetan aitortzen dira, hurrenez hurren. JAParen aurreko edizioetan guztiak IKER2 itemean aitortzen ziren. 2016/17ko JAPean honela geratuko lirarteke:

MEREZIMENDU MOTA	ITEMA	IRAKASLE ETA IKERTZAILE MOTA	KREDITUAK	OHARRAK
UPV/EHUko, autonomia erkidegoko edo estatuko deialdietako taldeak edo proiektuak.	IKER2	Seiurtekorik gabeko irakasle eta ikertzaile ez-doktoreak.	Kreditu 1	KREDITUOK EZIN DIRA PILATU
9.000 euroko gehiagoko kontratuak.	IKER2	Seiurtekorik gabeko irakasle eta ikertzaile ez-doktoreak.	Kreditu 1	
ERC bateko <i>granteea</i> .	IKER2	Irakasle eta ikertzaile guztiak.	4 kreditu	
Europako H2020 edo FP7 proiektuetako buruak.	IKER4	Irakasle eta ikertzaile guztiak.	4 kreditu	KREDITUOK EZIN DIRA PILATU
Europako H2020 edo FP7 proiektuetako kideak.	IKER4	Irakasle eta ikertzaile guztiak.	2 kreditu	
Urtero 150.000 eurotik gorako kontratuetako/hitzarmeneko ikertzaile nagusiak.	IKER4	Irakasle eta ikertzaile guztiak.	4 kreditu	
Urtero 150.000 eurotik gorako kontratuetako/ hitzarmeneko kideak.	IKER4	Irakasle eta ikertzaile guztiak.	2 kreditu	

\*IKER2 eta IKER4 arteko jarduerarik onuragarriena kontuan hartuko da.

## **JARDUN AKADEMIKOAREN PLANA 2016/17 - BERRIKUNTZAK**

[GOBERNU KONTSEILUAK 2015/10/01eko BILERAN ONARTUA]

- EI4-Mailako, moduluko edo ibilbideko koordinatzailea izatea; eta EI7-Graduko koordinatzailea izatea: kredituak jarduera egiten den ikasturtean bertan aitortuko dira.
- EI6-Ebaluazio positiboa Docentiaz programan: aitortuko den kreditu kopurua aldatu da.
- EI8-Doktorego programen gestioa: aitortuko den kreditu kopurua aldatu da.
- EI9-Unibertsitateko master ofizialen gestioa: aitortuko den kreditu kopurua aldatu da.
- Euskararekin zerikusia duten jarduerak, lehen item bakarrean jasota zeudenak (EI17), orain bi itemetan jasota daude:
  - EI10-Euskararekin zerikusia duten jarduerak-Euskarazko berezko tituluetan euskaraz emandako irakaskuntza.
  - EI11-Euskarazko eskuliburuak argitaratzea.

### **JAPetik DESAGERTU DIREN JARDUERAK (ETA BAKOITZAREN KODEA 2015/16ko JAPean)**

- IKER3- Bizirik ez dauden seiurtekoak
- IKER4-Seiurtekoen ebaluazio negatiboa
- IKER5-Argitalpen kontseiluko kidea izatea
- IKER6-SGIkerreko aholkularia
- IKER8-PIUren arduraduna
- IKER9-CSiCi atxikitako unitatearen arduraduna
- IKER10-Biltzarretako antolakuntza batzordeko kidea izatea
- EI1- GRAL eta MALetako epaimahaietako kideak
- EI2-Prestakuntza ikastaroetan emandako eskolak
- EI3- ERAGIN programaren garapena
- EI3-ISBNa edo ISSNa duten unibertsitateko eskuliburuak argitaratzea
- EI10-Emaitza bikainak dituzten irakaslanari buruzko inkestak
- EI12-UPV/EHUren hezkuntza programa trinkoak
- EI14-Irakaskuntzaren berrikuntza sustatzeko proiektuak
- G2- PAZeko lankidea izatea
- G8- UPV/EHUko Udako Ikastaroetako zuzendaritza batzordeko kidea izatea